

Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Ordizian, **2019ko otsailaren 28an** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK


AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2019ko urtarrilaren 31ko udalbatzarrak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.
- 2.- Urtarrileko Alkatetzako dekretuen berri ematea
- 3.- Kontu-hartzaileak otsaileko Kontratuak dagokien ingeren berri ematea.
- 4.- Duintasunez hiltzeko eskubideari buruzko proposamenari Ordiziako udaleko atxikimena.
- 5.- 2019ko martxoaren 8 erakunde-adierazpena "Bizitzak erdigunera!!!!" izenburua duena.
- 6.- Kudeaketa materialaren ardurari buruzko hitzarmena, Ordiziako udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artekoa.
- 7.- 2019 ekitaldirako Plantilla Organikoa.
- 8.- 2019 ekitaldirako Lanpostu Zerrenda.
- 9.- Bake-epailearen izendapena.
- 10.- Oinarrizko udal zerbitzuen prezio publikoak zergak eta tasak ordaintzeko diru-laguntzak emateko programa arautzen duen udal ordenantza indargabetzea.
- 11.- Galde-erreguak.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

- 1) Ordiziako udalerrian aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea.
- 2) Lehen mailako mediku arretari buruzko mozioa, Ordizia Orainek aurkeztutakoa.



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:


- 1.- NATURKONEk aurreko osoko bilkuran aurkeztutako mozioa eta onartu zena nola dagoen jakin nahi du.
- 2.- Filipinak 6 kalean eraitsitako eraikinaren planoei buruzko galdera.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 21:20 etan





Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2019ko urtarrilaren 31ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2019ko urtarrilaren 31n ohiko deialdian egindako osoko bilkuraren akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Urtarrileko Alkatetzako dekretuen berri ematea

Urtarrileko Alkatetzako dekretuen berri eman da.


Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Kontu-hartzaileak otsaileko kontratuei dagokien ingeren berri ematea****KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (02/2019):****Ordizian 2019ko otsailaren 14an****AURREKARIAK:****Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:**


Enpresaren Izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera dta	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2018an Gastatua
Gesmunpal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	33.393,66
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	44.253,92
Landarri S.L.	Hilerraren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	30.058,12
Eulen Sociosanitarios	Etxez-etxeko laguntzaren zerbitzua	2010/12/24	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Tarifen arabera.	82.481,67
Lorratz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barne	65.529,00
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	105.496,36
INDOK	Munigex-en kudeaketa	Kontraturik gabe.	Urterokoa		2016ko prezioa: 12.196,80 euro BEZ barne	9.107,32
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa: 17.061 euro BEZ barne	17.913,96
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigrazio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	22.089,30

a) Aplikagarria zaizkion arauak:**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa,.****"29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa."**

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldiari-aldiari prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.**

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-**



kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.



Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaileetako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.


Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaileetako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPARO FAKTURAK:		OTSAILA
HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2019/2	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	464	5.460,75
INDOK	1136	3.239,78
LAIA, S.COOP.	18/61	1.492,83
LAIA, S.COOP.	19/03	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	002U/19	7.640,25
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3587048	9.498,53
ORDIZIA GARBIKETAK S.L.	7	286,48
	GUZTIRA	32.812,70



ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularitasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

2019/0224. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2019ko otsailaren 14an egindako 02/2019 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:


HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

ERREPAROA: FAKTURAK

OTSAILA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J. M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2019/2	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	464	5.460,75
INDOK	1136	3.239,78



LAIA, S.COOP.	18/61	1.492,83
LAIA, S.COOP.	19/03	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	002U/19	7.640,25
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3587048	9.498,53
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	7	286,48
	GUZTIRA	32.812,70

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ALKATEAK

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Ordiziako udaleko mozioa duintasunez hiltzeko eskubideari buruz.

Proposamena

Portugaletoko Lorente Tellaetxe familiak, okertze egoera larrian dagoen haien amak/emazteak bere bizitzari amaiera emateko daukan eskubidea mahaigaineratu du. Arrazoitzeko gaitasuna zeukanean, Maribel Tellaetxe gure herritarrak maiz adierazi zuen ez zuela gaur egun dagoen egoeraren moduko baldintzetan bizi nahi eta aurretiazko borondateen dokumentuan (ABD) idatzita utzi zuen hori. Haren familiak eskaera bat abiarazi du Change.org plataformaren bidez, haien amaren egoera eta nahia azalduz eta eutanasia eskatuz. Eskaera horrek gaur-gaurkoz 158.000 babes sinadura baino gehiago jaso ditu. Mozioaren amaieran eskaeraren testua gehitu dugu.


Heriotza norbanako bakoitzaren biografia pertsonalaren azken egintza da eta beraz, bizitza duinaren agindua amaierara arte iristen da, hiltzeko unera arte. Azken urteotan gure ordenamenduetan txertatutako aldaketek, batik bat 41/2002 Legeak, bere garaian mediku-tratamenduaren betebeharra zedarritzen aurrerapauso handia izan zenak, pazientearen borondate autonomoaren mendean jarri zuen mediku-tratamendua eta ez bizirik mantentzeko aukera teknikoen baldintzapean.

Zoritxarrez, nahiz eta Eusko Legebiltzarrak bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko 11/2016 Legea onartu zuen, norberaren bizitza modu ziurrean, baketsuan eta minik gabe amaitu ahal izateko adituen laguntza jasotzea erabaki askearen esparrutik kanpo kokatzen da, interesdunaren irizpideen arabera gelditzen zaion bizitzak ez duenean bizitzerik merezi.

Balizko ondare bati -duintasunik gabeko bizitza bati, jabeak uko egiten dionari- babes juridikoa emateko aitzakiaz modu librean eskatutako laguntza onuragarria ematen dutenei askatasuna kentzeko zigorrak ezartzea, pertsona batek seriotasunez eta behin eta berriz eskatu dienean eta pertsona hori indarrean den Zigor Kodearen 143.4 artikulua deskribatutako egoera tamalgarrian dagoenean, krudelkeria gehigarria da, bere borondatearen aurka bizitzera derrigortu edo heriotza tragikoa eta bortitza izatera bultzatzen baitaio.

2015eko ekainaren 12an Eusko Jaurlaritzak legez besteko proposamen bat onartu zuen Gorte Nagusiei suizidio lagundua despenalizatzeko Zigor Kodeko 143.4 artikulua indargabetu zezaten eskatzeko.

Gaur egun, eutanasia arautzeko Lege Organiko baten proposamena izapidetzen ari dira Diputatuen Kongresuan, pertsonak hiltzeko laguntza eskatu eta jasotzeko duten eskubidea aitortzen duena; alde



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

aurretik jarraibideen dokumentua edo baliokide bat izenpetu duten eta ezintasun egoeran dauden pertsonen eutanasia aurreikusten du proposamen horrek, gure herritarraren kasua bezalakoak, alegia.

Eutanasia aspaldi arautu zuten gure inguruko herrialdeen esperientziak erakusten du ez dela eragin negatiborik jazo biztanleria zaurgarriengan, zenbaitek legalizazioa geldiarazteko erabiltzen duen argudioa, hain zuzen ere. Inkesta askotan adierazi den eran, herritarrek eutanasia legez arautzea aldarrikatzen dute, adinaren, sinesmenaren edota atxikipen politikoaren ondoriozko murrizketarik gabe.

Aurrekari horiek kontuan izanda, ORDIZIAko Udalak egokia deritzo Udalbatzak honako

ERABAKI hauei buruz eztabaidatzea eta ebaztea:

ERABAKIAK

- 1. ORDIZIAko Udalak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio despenaliza ditzala Zigor Kodearen 143.4 artikuluan aurreikusten diren jokabideak.**
- 2. ORDIZIAko Udalak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio indargabetu dezala 26/2015 Legearen azken xedapenetako bigarrena.**
- 3. ORDIZIAko Udalak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio albait lehen izapidetu eta onartu dezala eutanasia arautzeko Lege Organikoaren Proposamena, norberaren bizitza modu seguruan, baketsuan eta minik gabe amaitzeko unea eta modua libreki aukeratu ahal izatea bermatuko duena, beharrezko laguntza jasota..**
- 4. Diputatuen Kongresuan eta Senatuan ordezkatura dauden alderdi politikoei erabaki honen berri ematea.”**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia andreak adierazi du aurreko osoko bilkuran duintasunez hiltzeko eskubideari buruzko mozio bat sartzea erabaki zela, eta hura betez, bere taldeak mozio edo adierazpen hau aurkeztu du, osoko bilkurak onartzeko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- 2019ko martxoak 8. Erakunde-adierazpena. BIZITZAK ERDIGUNERA!

Proposamena

2019ko MARTXOAK 8.- ERAKUNDE-ADIERAZPENA



BIZITZAK ERDIGUNERA!!!!

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako emakumeen lan etenaldi deialdiari eman zion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, **“Bizitzak Erdigunera”** lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta **Bizitzak Erdigunear** jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunear jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki **emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia** eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen. **Europako Berdintasun Adierazleak** kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Ordiziako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- Ordiziako Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.
- Ordiziako Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunear jartzeko.
- Ordiziako Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.
- Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera

Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Jakinarazi du EUDELe proposatutako mozioan hartzen diren konpromisoak aurreko urteetako norabide berean doazela.

Sukia andreak

Esan du berak aurkeztutako mozioa emakumeek gizonekiko duten aldearen aurka doala eta EUDELe proposatutako adierazpenarekiko aldea da bere proposamenak emakumeen greba babesten duela.



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Gainera, aurreko urtean egin zen moduan, proposatu du, osoko bilkura honetara etortzeagatik zinegotziek kobratzen dituzten dietak M8 plataforma feministara bidera daitezela, Kimetzen bidez, honek 2019ko martxoaren 8an egin behar dituen ekimenetarako bidera ditzan.

Alkate jaunak adierazi du EUDELen proposamena eta O. Orainek aurkeztutako proposamena antzekoak badira ere, desberdintasun batzuk badaudela, eta beraz, gobernu taldeak aurkeztutako EUDELen mozioa kenduko du eta O. Orainek proposatutako mozioa sartzea proposatuko du.

Proposamena

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, **“Bizitzak Erdigunera!”** lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Hau da, bizitzea merezi duten bizitzak. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, balioa, aberastasuna eta ongizatea sortzen dituen jarduera ekonomiko gisa aitortzea etxeko lanak, pentsio duinak lortzeko eta mendekotasunari aurre egiteko borrokan egitea, neurriak eta baliabideak indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea. Gure udaletik ere, beharrezkoa da gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lana egitea.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun **zaintza-lan** hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrakoak izan daitezen. **Europako Berdintasun Adierazleak** kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Ordiziako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:


- **Ordiziako Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra berrmatuko duten politika publikoak burutzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak ipintzeko.**

- **Ordiziako Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko eta udalerrian formazioan eta sentsibilizazioan oinarritutako ekimenak.**

-**Martxoaren 8rako MFk eta emakume taldeek bultzatzen dituen manifestazio, kontzentrazio, ekimen eta ekitaldien zabalpena egingo du Ordiziako Udalak.**

-**Ordiziako Udalak herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.**

Udal honetako zinegotzi guztiei ondorengo proposamena egiten zaie: osoko bilkura honetara etortzeagatik dagokien diru-kopurua edo soldataren zati proportzionala 8M plataforma feministara bidera dezatela Kimetzen bitartez, 2019ko martxoaren 8ko ekimenetara bideratzeko.



Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Kudeaketa materialaren ardurari buruzko hitzarmena, Ordiziako udalaren eta Polizia eta Larrialdietako euskal akademiaren artekoa.

Proposamena

Urriaren 1eko Sektore publikoko Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legeak Udaletxeei hitzarmen hauek izenpetzeko ahalmena ematen die: administrazio-organoetako eskumenekoak diren izaera material edo teknikoko ekintzak egiteko, kudeaketaren ardura beste bati emateko hitzarmenak.

Hori ikusita, Ordiziako Udaletxearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko hitzarmena izenpetzea proposatzen da, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa prozesu bateratuen kudeaketa materiala Akademiaren esku uzteko.

Aplikatu beharreko araudia hau da:

- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17,1,4. artikulua.
- Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubidearen 40/2015 Legearen 11. artikulua.
- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 legearen 6. artikulua.

Azaldutakoaren arabera eta 2019ko otsailaren 20an egin zen Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- Ordiziako Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko hitzarmenaren izenpetzea onartzea. Eransten den testuaren arabera, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agentearen lanpostu bat betetzeko Udaletxearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeaketa materialaren ardura Akademiari emateko.


Bigarrena.- Ordiziako Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena eman.

Hirugarrena.- Onartu den akordioa Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia igorri akordioa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Azaldu du iaz sinatu zen hitzarmenaren antzeko beste bat sinatuko litzatekeela eta Polizien eta Larrialdietako Euskal Akademiak burutuko duen polizien 3. deialdi bateratura joko litzatekeela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- 2019 ekitaldirako Plantilla Organikoa.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2019 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta O.A Herri Antzokia, goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2019 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean onartzeko aurkezten dute honen bitartez.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2019 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen Eranskin gisa doana.

Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta Herri Antzokia Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2019 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen eta erabaki honen Eranskin gisa doana.

Hirugarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak era iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4VV39.5cGK>



Eguren jauna

Esan du aurreko astelehenean, Tokiko Gobernu Batzordean desadostasuna izan zela hutsik geratu den eta bete behar den lanpostu baten inguruan eta zehazki hizkuntza eskakizuna betetzeari dagokionean.

Adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela bozketan “2019rako Lanpostuen Zerrendaren onarpena” puntuari bezala, ez delako exijitzen lanpostuetan ezarrita dauden hizkuntza eskakizunak betetzea.

Sukia andreak

Esan du bere taldeak ere aurka bozkatuko duela %34ko bitartekotasuna dagoelako legeak gehienez %6a baimentzen duenean. Urteak daramatzagu horrela eta ez du ikusten arazoa konpontzeko gestio serioerik egiten denik.

Lanpostu Zerrendako prekarietatearen kontra daude eta bere ustez arazoari amaiera emateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EH-Bildu 5)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- 2019 ekitaldirako lanpostu zerrenda.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.


Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Hizkuntza normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetza SL eta O.A.k Herri Antzokia, 2019 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA



Lehena.- 2019 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN ereduari dagoen bezala.

Bigarrena.- Majori Kirolegia SL-ko eta O.A.Herri Antzokia lanpostu guztiak, 2019 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hogeitun lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Llas mismas que en el punto anterior.¿?

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EH-Bildu 5)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


9.- Bake epailearen izendapena.

Proposamena

Jakinarazten da gaur egungo Bake Epaileak izendatu zeneko lau urteko epea amaitu dela eta EAEko Auzitegi Nagusiaren errekerimenduz Bake Epaile berria eta haren ordezkia izendatzeko prozedura hasi dela.

Horrekin batera, jakinarazten da aipatutako karguak betetzeko eskaerak aurkezteko epea ireki zela, 4 zenbakiko 2019ko urtarrilaren 7eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bitartez. Eskaera hauek aurkeztu ziren.

- M^a Carmen Mendizabal Mugica N.A.N. zbka.15908460-G duena eta helbidea, Urdaneta kalea, 1-7. izda. Ordizia
- Julen Harto Manzano, N.A.N zbka.72508286-G dueña eta helbidea, Domingo Unanue enparantza 8-3. Ordizia.
- M^a Jesús Camino Fernandez, N.A.N zbka. 72570132-A eta helbidea, Errekarte kalea, 36-4.ezk. Beasain.
- Asier Lopez Ormazabal, N.A.N.zbka, 34109802-C eta helbidea, Ibarrolaburu 8, behea,ezk.Hernani.



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Bake Epaileen Araudian (1995eko ekainaren 7koa) eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101 artikuluan eta ondorengoetan zehazten denaren arabera eta otsailaren 20ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo akordioa proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- M.CARMEN MENDIZABAL MUGICA izendatzea Bake Epaile titularren kargurako, eta JULEN HARTO MANZANO izendatzea ordezkoko Epailearen kargurako.

2.- Akordioaren kopia EAEko Auzitegi Nagusira bidaltzea izendapen honen ondorioetarako.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jaunak

Titular moduan M. Carmen Mendizabal Mugica izendatzea proposatzeko osoko bilkurarako gaien batzordean adostutako proposamenaren berri eman du, agian adinagatik eta esperientzian oinarritutakoa.

Ordizian bi interesdun izanik, Bake Epaile ordezkoko moduan Jolen Harto Manzano proposatzen da.

Sukia andreak azpimarratu du Julen Hartok, gaztea izanik, Bake Epaile izateko interesa erakutsi duela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


11.- Oinarrizko udal zerbitzuen prezio publikoak, zergak eta tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko programa arautzen duen udal ordenantza indargabetzea

Proposamena

2010eko maiatzaren 28an Udaleko osoko bilkurak onartu zuen eta 2012ko maiatzaren 31ko osoko bilkuraren akordio bidez aldatu zen, Oinarrizko udal zerbitzuen prezio publikoak, zergak eta tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko programa arautzen duen udal ordenantza

Ordenantza honek ondorengo zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen ditu;

- Ura.
- Zaborrak.
- Estolderia.



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

- Kiroldegiko kuota.

Une honetan kontzeptu hauek estalita geratzen dira Gizarte Zerbitzuetako beste programa batzuetan, esaterako, Gizarte Larrialdietako laguntzetan edota Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal laguntzetan.

Hori dela eta administrazio zama murrizteko eta bikoiztasuna saihesteko edo xede bera duten programak diruz laguntzea saihesteko, indarrean dagoen ordenantza indargabetzea proposatzen da.

2019ko otsailaren 28ko osoko bilkurarako gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin ondorengo proposatzen da,

AKORDIO PROIEKTUA

1.-Oinarrizko udal zerbitzuen prezio publikoak, zergak eta tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko programa arautzen duen udal ordenantza indargabetzea, 2019ko martxoaren 1etik aurrerako eraginarekin.

2.- Akordio hau udalaren webgunean eta Udalaren iragarki-oholean argitaratzea.

Eztabaida

Dubreuil jn.

Azaldu du indargabetzearen helburua dela dirulaguntzak izapidetzean izapideak erraztea bikoiztasunak saihestuz.

Dirulaguntzak bermatuak daude, ez dira galtzen, eta kopuruak ere bermatuak daude.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.




Jarraian, eta "galderak eta eskaerak" puntura pasa aurretik, alkate jaunak esan du bi puntu daudela osoko bilkurara ekartzen direnak eguneko gai ordenera presazko puntu gisa sartzeko.

- 1) Ordiziako udalerrian aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea.
- 2) Lehen mailako mediku arretari buruzko mozioa, Ordizia Orainek aurkeztutakoa.

Hasteko, puntuen presazko izaera bozkatu da.


Aurkeztutako puntuen presazko izaera bozkatzea



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0



11.- Ordiziako udalerrian aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea.

Proposamena

2018ko azaroaren 29ko osoko bilkuran hasierako izaeraz onartu zen aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantza, 2019ko urtarrilaren 2an argitaratu zen 1 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onarpena 30 egun baliodunetan erakusketa publikoan izanda alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Erakusketa publikoko epea amaituta ez da inongo alegaziorik aurkeztu, eta beraz, hasierako onarpen akordioa behin betiko bihurtu da.

Honela onartutako ordenantza GAO on osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartzen da indarrean, nahiz eta izapide hau oraindik ez den egin.

Duela gutxi zalantza sortu da, "sektore gorri" izendatutako eremuen aparkaldiak ordenantzaren 8. artikuluan jasotzen den tasa edo prezio publikoaren ordainketa ekarri behar ote duen edo ez.

Udalak egoki ikusi du udalerraren zenbait eremutan aparkaldi mugatuak martxan ipintzea helburu zehatz batzuk lortzeko, eta horretarako lehenengo fase baterako proba moduko bat egitea aurreikusten da lortu nahi diren helburuak lortzen diren ziurtatzeko.

Horregatik, epe horretan, funtzionamendu-diagnostikotzat hartzen denez, egokitzat hartu da inongo prezio edo tasarik ez likidatzea eta onartutako ordenantza puntu honetan aldatzea, eta aldaketa honetarako onarpenerako jarraitu behar diren izapide berak jarraituko dira.

Horiek horrela, honako akordio-proiektu hau onartzea proposatu da.

AKORDIO PROIEKTUA


- 1) Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen Ordenantzaren 8. Artikulua "tarifak" aldaketa hasierako izaeraz onartzea eta eremu gorri gisa izendatutako eremuetan aparkatzeko ezarritako tarifa ordaintzeko betebeharra kentzea.

8. artikulua honela idatzita geratzen da: "ez da inongo tarifarik ordainduko eremu mugatuetako aparkaldiengatik".

- 2) Aldaketa hau GAO on argitaratzea jendaurreko erakusketarako eta udalaren webgunean 30 egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.
- 3) Hasierako izaeraz onartutako akordio hau behin betikotzat hartzea osoko bilkuran beste akordiorik hartu behar izan gabe jendaurreko erakusketa epean alegaziorik ez bada aurkezten.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Alkate jn.

Jakinarazi du aparkaldi mugatuko hainbat eremu ezarri nahi dituela; eremu gorriak eta urdinak.

Eremu gorrian aparkatzeagatik tarifa edo tasa bat ordaintzea jasotzen duen ordenantza berriki onartuta, bi bizilagunek kexa adierazi dute, eta esan dute proiektu pilotu edo probaldia izanik aipatu tarifa kendu egin beharko litzatekeela.

Ezenarro jaunak esan du osoko bilkura honek, berriro ere, agerian uzten duela inprobisazioa. Gobernu-taldeak aurrekontuak aurkezteko asmoa zeukan, edo hori da, behintzat, prentsan esan dena. Gaur, ordea, ez dago aurrekonturik.

Esan du Ordenantza onartzerakoan abstentziora jo zutela osoko bilkura egin aurretik udalak proiektua aurkeztera prentsara jo zuelako, proiektua onartuta egongo bailitzan.

Udaltzaingoak esan du ezinezkoa dela aparkaldi horiek mugatzea, langile nahikorik ez dagoelako.

Esan du, halaber, aurrekontuak onartuta, diru-kopuru bat jarri zela gobernu-taldearen esku mugikortasun-plan bat lantzeko, bere taldeak proposatutako zuzenketa bati esker.

Neurria martxan jarri da CAFeko langileek aparkalekuak betetzen dituztelako, eta ez aparkaleku-arazoari soluzioa emateko azterlan serio bat egin delako.

Horrez gain, bizilagunak kexatu egin dira ez zaielako behar bezalako informaziorik eman.

Ez dakigu aurrekonturik egongo den txartelen kostua ordaintzeko.

Inprobisazio horrek arazo gehiago ekarriko ditu. Eremuan 900 pertona daude erroldatuta, eta 200 aparkaleku baino ez. Zenbat txartel banatuko ditugu? Nori emango dizkiogu, lehen 200 pertsonari? Jendeak arazoren batengatik udaltzainei dei egiten badie, eta udaltzainek arazoari aurre egiteko bitartekorik ez dutela erantzuten badiete, zer gertatuko da?

Ez zaie iruditzen irtenbidea hori denik.

Sukia and.

EH Bildurekin bat dator. Haren iritziz, ordenantza aldatu beharrean, zuhurragoa eta egokiagoa izango da xedapen iragankor bat gehitzea, eta horretan adieraztea ez dela tasarik kobratuko aurreikusitako eta xedapenean jasotako epean. Alabaina, aipatutako epea igarota, tasa kobratu ahal izango da ordenantza berriz ere aldatu beharrik izan gabe.


Alkate jn.

Esan du kexak egon direla, baina ez direla asko izan. Hainbat herritar beren iradokizunak azaltzera etorri dira, eta entzun egin zaie.

Neurria gaueko 20:30ean jartzen da martxan. Proba-fasean dagoen proiektua da, sor daitezkeen kasuistiken eta arazoen diagnostikoa egin, eta finkatutako helburuak erdiestea ahalbidetuko duten soluzioak bilatzeko.

Ez dago aldaketa xedapen iragankorrek epe bat finkatzea ezartzearen kontra.

Dubreuil jn.



Ordiziako Udala

2019IOSB0003

Esan du ez dela inolako inprobisaziorik egon; aspalditik eztabaidatzen ari dira gaia mugikortasun-mahaian.

Bilduk aipatu dituen kexak direla-eta, esan du ez dakiela asko edo gutxi diren.

